

mugimendu herritarrean organizatzera eta koordinatzera eraman dezaketenak Herri hau: atxiloketa basatiak, torturak, autodeterminatzeko eta beste hainbat eskubide gizatar, politiko eta nazionalen ukatzeak, euskararen menperakuntza etengabeak eta aldian aldiko erasoak. Guztiak dira Herri eta gizarte honek bere askatasun-bidean gaingitu behar dituen oztopoak.

Ibilaldi luze horren hasiera berri bat izan zen Bilboko ibilaldi nagusia: 30.000 manifestatzaile kalean... 300.000 sinatzaile atzetik bultzaka... 3.000.000 euskaldun bidegintza luzerako. ■ *Paulo Agirrebaltzategi.*

«La Tarde de Euskal-Herria» egunkaria hil

Zaratarik gabe jaio zen, irailaren 13an, eta halaxe hil da, zaratarik batere gabe. Imposak ateratzen zuen, *La Voz de Euskadi*-ren enpresa berak.

La Voz inoiz desagertzen bada, pena handia hartuko dut, bai horixe. Ez, aldiz, *La Tarde* hil denean. Nola hori?, galde dezake norbaitek. Esprikaeraza oso: *La Tarde*-ren atzean egitasmo serioirik zegoenik ez zait iruditzen. Inprobisaziotik asko zuelakoan nago. Heldu eta umotu gabeko projektua zen niretzat. «Globo sonda» bat zirudien. Funtzionatu egiten zuela? Oso ondo. Ezetz? Bost axola. *La Voz*-en larrialdiak ezagututa, honen alternatiba posible gisa pentsatua ematen zuen, eta ez bere horretan pentsatua eta aztertua. *La Tarde*, nire ustetan, ez da egiazko apustu serioa izan sekula. Airean egindako eupada bat zen. Txilibituak soinuak egin ez duenez, itxi egiten da arratsaldetaria, eta kitto. Ez da ezer pasa.

Horixe da egia: ez da ezer pasa. Ez jaiotzean, eta ez hiltzean. *La Tarde*, produktu informatibo bezala, ez zen beste mundukoa. Formula arinegia, hutsegia. Eskasa zen. Bi aldiz pentsatu behar zen haren truke 40 pezeta eman aurretik. Garestiegi dago bizimodua luxu horietarako. ■ *Joan Altzibar.*

«Antiterrorismo militante»

«Grupo 16» delakoak antolatutako «Violencia política y terrorismo» izenez ihardunaldi batzu ospatu dira Madril en urria-